



IKER  
GAZTE  
NAZIOARTEKO  
IKERKETA EUSKARAZ

## V. IKERGAZTE

NAZIOARTEKO IKERKETA EUSKARAZ

2023ko maiatzaren 17, 18 eta 19a  
Donostia, Euskal Herria

ANTOLATZAILEA:  
Udako Euskal Unibertsitatea (UEU)



Aitortu-PartekatuBerdin 3.0

## INGENIARITZA ETA ARKITEKTURA

**Kale-oinezkotzeek merkataritza-  
ehunean duten eragina:  
Bartzelonako Eixample barrutiaren  
azterketa kasua**

*Martzel Arriaga Irazabal*


63-70 or.

<https://dx.doi.org/10.26876/ikergazte.v.03.08>

ANTOLATZAILEA:



BABESLEAK:



LAGUNTZAILEAK:



## **Kale-oinezkotzeek merkataritza-ehunean duten eragina: Bartzelonako Eixample barrutiaren azterketa kasua**

Martzel Arriaga Irazabal  
*Centro de Política del Suelo y Valoraciones, Universitat Politècnica de Catalunya (UPC)*  
*martzelarriaga@gmail.com*

### ***Laburpena***

Lan honek Bartzelonako Eixample barrutiaren merkataritza-azterketa bati heltzen dio, kale-oinezkotzeek merkataritza ehunean sortzen dituzten ondorioak kuantifikatzeko eta kualifikatzeko. Horretarako, lehenik eta behin, barrutiaren diagnostiko sinkroniko orokor bat egin da, eta, jarraian, hurbileko analisisien bidez Sant Antoni auzoko *Superilla* ingurua aztertu da 2008-2022 urte-aldian. Ondorio gisa, oinezkotzeek merkataritza-aniztasuna murrizten dutela eta ostalaritza- eta jatetxe-erabileren monolaborantza joera areagotzen dutela egiaztatzen da.

Hitz gakoak: oinezkotzea; merkataritza; gentrifikazio komertziala; Superilla

### ***Abstract***

*The purpose of this project focuses on the quantification and qualification of the resulting effects produced as a consequence of pedestrian prioritization at Eixample district, Barcelona. To achieve this, it has been pursued a commercial analysis of the streets directly affected by this situation as well as their immediate surroundings. The analysis embraces first of all a global synchronic diagnosis of the district, followed by a diachronic recording of the economic activities regarding ground-level shops placed in the St. Antoni's Superblock area from 2008 to 2022. As a result, it can be concluded that pacification leads to a decrease in commercial diversity and also produces a tendency towards monoculture in bars and restaurants industry.*

*Keywords: pedestrianisation; retail; Commercial gentrification; Superblock*

## **1. Sarrera eta motibazioa**

Kaleak oinezkoentzako bihurtzearen edo baketzearen kontzeptua ez da berria. Honen onurak, hirurogeita hamarreko hamarkadatik aztertzen joan dira, ez soilik mugikortasunaren eta irisgarritasunaren funtzionamenduan. Ingurumenaren kalitate onura, osasun publikoaren hobetzea, eta aldaketa sozial eta ekonomikoak ere sortzen ditu, pertsonen arteko interakzioa errazten duelako eta merkataritza eta turismoa hobetuz (Sanz, 1998).

*Superilles* izeneko udal-programaren bidez, Bartzelonak etorkizunerako proiektu bat definitu du Cerda hiri-sarearentzat, mugikortasuna berrantolatuz, kaleetan ardatz berde eta plaza berriak sortuz. Proiektu honen bidez, hiri-etxadien multzoak sortu nahi dira, oinezkoei eta motorizatu gabeko mugikortasunari lehentasuna emango dieten kaleekin.

Programa honen ezarpenaren lehen adibideei esker, espazio publikoko esku-hartzeek behe solairuko jardueretan eragiten dituzten aldaketak ebaluatu eta modulatu ahal izan dira, dagozkien kasuetan erabilera-erregulazio planak sortuz.

Behe solairuetako jardueren intentsitateak eta Eixample barrutiko zenbait eremuren espezializazioak eragozpenak eragin dituztela plazaratzeko aukera eman du honek, bizilagunen osasuna eta bizi-kalitatea kaltetuz eta gentrifikazio-gertakari posibleak sortzeko arriskua sortuz (Ajuntament de Barcelona. Pla d'usos de l'Eixample, 2022).

Artikuluaren oinarritzen den tesiaren gaia, Eixampleko Erabilera Plan berriaren argitalpenarekin estu lotuta dago, eta hari euskarri eta dokumentazio gehiago eman ahal izateko pentsatu da,

oinezkoentzat hobetu diren kaleen bilakaera eta haien portaera komertziala ikusiz. Batez ere, da geraldian dauden *Superillek* zer-nolako eragina izan duten ikusi ahal izateko egiten da azterketa.

## 2. Arloko egoera eta ikerketaren helburuak

### 2.1. Arloko egoera

Bertako merkataritzaren bideragarritasunean esku hartzen duten faktore nagusietako bat kaleen oinezkotzea da (Simó López et al., 2018).

Kaleen oinezkotzea honela defini daiteke: kaleak motordun trafikoko pribatuari erabat edo partzialki ixtearekin lotutako fenomeno (Sanz, 1998). Bere helburu nagusia, bizilagun eta turistentzako paseorako leku atseginak izateko baldintza egokiak sortzea da, aurretik ibilgailu mota guztientzat ziren kale horiek moldatuz (Simó López et al., 2018).

Bartzelonaren kasuan, kaleak oinezkotzeari “kaleen baketzea” esaten zaio. Salvador Ruedaren *Superillaren* ideiarekin arabera, kalea ez da trafikora guztiz ixten, baina, nolabait, autoarentzako gaitzak diren zirkulazio-abiadura mugen bitartez eta ibilbide ez-linealen bidez bertatik autoz pasatzea zailtzen da.

Oinezkoentzako bihurtzearen ondorio negatiboak gentrifikazio-prozesuekin erlaziona daitezke. Bizitegi-erabilerak kanporatzen dira, eta denda tradizionalak itxi eta establezimendu espezializatuagoekin ordeztzen dira. Prozesu horrekin batera, espazio publikoa merkantilizatu eta pribatizatu ere egin daiteke, espaloiak edo pasealekuak tabernetako eta jatetxeetako terrazak bezalako merkataritza-jardueretarako erabiliz (Sanz, 1996; Atkinson, 2003; Zukin 1998). Bartzelonako gentrifikazio prozesua, turisten beharrak asetzearekin lotuta dago (Cócola Gant, 2015) eta batez ere, turistentzat bideratutako ostalaritza jarduerengatik ematen da (Ajuntament de Barcelona. PEUAT, 2016).

Dagoen espazio fisikoa mugatua izanik, erabilerak elkarren artean lehiatzen dira. Ondorioz, errentagarritasun handiagoa duten jarduerak prezio altuagoak beren gain hartzeko gaitasun handiagoa izango dute (Martí Comas, 2016). Madrilen, kasu, kaleak erabat oinezkoentzako bihurtu edo hautzako azalera partzialki handitzeak, tokiko saltoki txikiak desagertzea erraztu du (Salvador Gonzalez, 2019).

### 2.2. Ikerketaren Helburuak

Bartzelonako Eixample barrutia taberna, jatetxe eta aisialdirako lokalak orokortzearen arazo bat jasaten ari deneko hipotesitik abiatzen da lan hau. Helburu bezala, oinezkotzearen ondorioz merkataritza-ehunean gertatu diren aldaketak hautematea eta erabileren monolaborantza, aniztasunaren galera eta tokiko merkataritzaren jaitsiera ikusi ahal izatea leudeke.

## 3. Ikerketaren muina

### 3.1 Metodologia

Azterketa bi zatitan banatzen da: bata, barrutiaren zati orokorra, eta, bestea, zonalde bateko hurbilekoagoan.

#### Analisi orokorra

Barruti-eskala aztertzeko, 2001 urteaz geroztik oinezkoentzako urbanizazio-mailan hobekuntza izan duten kale-zatiak hartu dira abiapuntutzat. Hiribide handiak, monumentu garrantzitsuen inguruan dauden tarteak (adibidez, Sagrada Familia tenplua), aldi baterako esku-hartzeak eta pandemia garaiko azken esku-hartze taktikoak baztertu dira.

Hurrengo mapan, aztertu diren kale-zatiak ageri dira (kolorez aipatutako aldian baketuak izan direnak):

## 1. irudia. Kale-zatien baketze motak eta hauen amaiera urtea



### Hurbileko analisisia

Eremuko zoom bat eginez, azterketa sakonagoa egin da Sant Antoni auzoan. Eremu hau, 2008az geroztik merkataritza nola aldatu eta azken urtetako kale baketzeen (*Superilla*) eraginak ikusi ahal izateko aukeratu da.

Aztertu diren kale-zatien aukeraketa (ikus 2. Irudia) honako irizpide honen arabera finkatu da:

*Superilla* proiektuaren bidez baketutako kale-zatiak (berdez, 2. Irudia); eta baketu gabeko zatiak, beren kokapenagatik eta kale-zabaleragatik baketutakoen antzekoak direnak.

## 2. irudia. Hurbileko analisisian aztertutako kale-zatiak (beltzez) dituen eremua



### Datuak hartzea

Barrutiaren azterketa orokorra Bartzelonako Udalak eskaintzen dituen datu irekietatik abiatuta egin da: 2019ko beheko solairuetako jarduera-errola, lokal-puntu bakoitza hurbilen dagoen kale-zatiari lotuz. Eskala honetan, ostalaritza jarduerak ardatzetan duten portaera ikusi nahi izan da. Hainbat alderdi aztertu dira, kale-zati bakoitzerako emaitzak mapeatuz.

Zonako datuak hartzeko, 2016 eta 2019 urteetako udalaren jarduera komertzialaren erroldak erabiltzeaz gain, *Google Maps Street View-n* erregistratutako kaleko irudien bidezko behaketak egin dira 2008 eta 2022 urteetarako. Azken datarako, landa-lanaren bidezko egiaztapen osagarri bat ere eginda 2022ko uztailan.

Horrela, 2008, 2016, 2019 eta 2022ko bi zokalo komertzialen informazioa jaso da eta honek konparazio bikoitz bat egitea ahalbidetu du: kasuen arteko sinkronikoa, eta kasu bakoitzaren lehengo eta egungo egoeren arteko diakronikoa.

### Datuen interpretazioa

2008, 2016, 2019 eta 2022ko inbentarioetan oinarrituta, datuen analisi kuantitatiboa egin da, eta, ondoren, datuen mapaketa egin da, Informazio Geografikoko Sistemak (GIS) tresna erabiliz.

Lehenik eta behin, barrutiaren azterketa globalak egiten dira (2019an), konparazio diakroniko bat eginez, honako alderdi hauei erreparatuz:

Merkataritza-aniztasuna (Entropia, Shannonen teoriaren arabera); merkataritza-lokalen intentsitatea (kale-tarte bakoitzean dauden lokalen kopurua, haien luzera haztatuaren arabera); ostalaritzako lokalen saturazioa; kale-tarteen espezializazioa; eta, ostalaritza-arloko lokalen ehunekoa kale-tarte bakoitzeko lokal aktibo guztiekiko.

Gainera, adierazle konbinatuak sortu dira, hala nola: intentsitatearen eta aniztasunaren arteko erlazioa; eta ostalaritzako espezializazioaren eta merkataritza-aniztasunaren arteko harremana. Horiek erregresio-ereduen bidez egiaztatu dira, eta “baketua” izan denaren aldagaia ere gehitu da.

Bestalde, hurbileko azterketan, konparazio sinkronikoa egiteko aukera ematen duten honako aldagai hauek aztertu dira:

Merkataritza-jardueraren bilakaera kale-zatien arabera (lokal aktiboen ehunekoa tarte bakoitzeko); jarduera nagusien bilakaera kale-zatien arabera; ostalaritza-lokalen proportzioa kale-zatien arabera; ostalaritza-jardueren intentsitatea kale-zatien arabera; terraza-azaleraren bilakaera eta espazio publikoaren okupazioa kale-zatien arabera (2019 eta 2022 urteen alderaketa); jardueren tipifikazioaren dinamika 2019-2022 urteen aldian; eta ostalaritza- eta jatetxe-erabilera izatera igaro diren lokalen identifikazioa.


### 3.2 Emaitzak

Azterketa orokorrean egindako analisisian lortutako emaitzetatik abiatuta, honako hauek ikus ditzakegu:


Dirudienez, barrutiko kale gehienek ez dute inolako arazorik erakusten erabilera-aniztasunari dagokionez. Entropia balio normaletan ikus daiteke, 2 eta 3 artean (3.irudia).

Baketuta egoteagatik ezagunak diren jatetxe eta ostalaritza jarduera duten kale-zatiak, ostalaritzan erabilera intentsoena dutenak dira barrutian (4. Irudia). Saturazio (gehiegizko intentsitate) eta kale-zatien ostalaritza espezializazioaren emaitzak oso antzekoak direla ikusi da.

### 3. irudia. Kale-zatien erabilera-aniztasuna




#### 4. irudia. Kale-zatien ostalaritza-espezializazioa



Korrelazioak aztertuz, Entropiaren (aniztasuna) eta merkataritza-intentsitatearen arteko erlazioa positiboa dela egiaztatu da (5.irudia). Era berean, baketuta dauden kaleek ere eragina dute merkataritza-intentsitatearen gorakadan (modu sotilean bada ere). Bestalde, kale-zatia baketuta egotea merkataritza-aniztasunerako negatiboa dela ikusi da, neurri oso txikian bada ere.

#### 5. irudia. Merkataritza-intentsitatea aniztasunaren (entropiaren) bidez azaltzeko sakabanatze-grafika



Hurbileko azterketa eremuan egindako analisisan lortutako emaitzetatik abiatuta, honako hau ikus daiteke:

1. taulak ostalaritzako merkataritza-lokalen bilakaera erakusten du. 2022 eta 2019 urteen arteko aldea ikusita, ostalaritzako eta jatetxeetako lokalen zenbaketari dagokionez, mantendu egin da. Aurreko aldietan, beti goranzko profila izan duen arren, aztertu den azken aldian, baketu diren kale-zatietan ostalaritza erabileren gorakada izan da (+1), eta baketu gabe dauden kaleetan beharakada (-1).

2022an, pandemia aurreko datuekin alderatuz, tabernetako terrazen azalera asko handitu da (6. irudia), batez ere baketutako kale-zatietan. Gainera, espazio publikoaren okupazioa ere baketuan (%8), ez-baketuan (%1) baino handiagoa dela ikusi da.


Merkataritza-dinamikari dagokionez, %28-ko merkataritza-txandakatzea egon dela ikusi da, eta oso antzekoa izan da baketu diren eta baketu gabeko tarteen artean. Txandakatu diren lokalen heren batek 2019an ez zuela jarduerarik egiaztatu da, eta gehienak ostalaritzako lokal bihurtu

dira 2022an (7. irudia). Gainera, ostalaritzako jardueren erabilera-aldaketa oso txikia dela ikusi da (8. Irudia). Ikus daitekeen bezala, aldatu diren ostalaritza lokalen % 77 berriz erabilera berbera izatera pasa dira, batez ere baketuriko tarteetan. Bihurtu diren beste erabileren artean, %19 zehaztu gabeko taldera (hau da, aktibitatearik ez izatera) pasa dira.


**1. taula. Ostalaritza lokalen ehunekoak eta bilakaera, kale-zati moten arabera**

	Kale motak	2008	2016	2019	2022	2008-2016	2016-2019	2019-2022	
Kale-zatiak	Guztiak	18%	19%	21%	21%	2%	2%	0%	
	Baketuak								+1%
	Ez-Baketuak								-1%


**6. irudia. Terraza-azaleraren gehikuntzaren ehunekoak, kale-zati mota bakoitzeko. Bilakaera 2022 (1. sei-hilekoa) – 2019 (2. sei-hilekoa)**



**7. irudia. 2019an aktibo ez dauden lokalak eta 2022an bihurtzen diren profila**



**8. irudia. 2019an "Jatetxeak, tabernak eta hotelak" ziren lokalak eta 2022an bilakatu diren profila**





#### 4. Ondorioak

Lortutako emaitzak ikusita, ikerketa honek honako hipotesi hauek egiaztatu ditu: «Kaleen oinezkotzeek merkataritza-aniztasuna murrizteko joera dute» (oso neurri txikian bada ere) eta «Kaleen oinezkotzeek taberna eta jatetxe jarduerak areagotzeko joera dute». Azken hau ere, neurri txikian ari da gertzen eta baliteke gehiagora ez jotzea horretarako euste-tresnak daudelako (erabilera planak). Hala ere, tresna horiek ez zeuden garai batean, ostalaritza eta jatetxe kale espezializatuak dezente sortu ziren.

Ostalaritzan eta jatetxe-arloan espezializatutako kale-zatiak baketuta badaude, esan liteke espezializazioa dibertsitatea murriztearekin batera doala, eta hori ostalaritza-aniztasunaren eta -espezializazioaren arteko harreman negatiboarekin ikusi da, nahiz eta emaitza ahulak izan, irmoki horrela dela baieztatu ahal izateko.

Era berean, ikerketaren bidez egiaztatu ahal izan denez, «kaleen oinezkotzeek hau beteago egotearen sententzia sortzen dute», espazio publikoaren okupazioa handiagoa delako zati baketuetan. Gainera, honek, eragin handiagoa du obra esku-hartze (egituratzailea) bezala egindako kale-zatietan.

Horrez gain, ikusi da dezente txandakatzeko komertzial dagoela aztertutako eremuan, baina ostalaritza-erabilerekin ez dutela, orohar, erabilera aldatzen. Halaber, lokal hutsek ostalaritza erabilerara bihurtzeko joera dute.

#### 5. Etorkizunerako planteatzen den norabidea

Lan honen tesia aztertu eta idazterakoan, etorkizuneko ekarpenetarako kontuan har litezkeen zenbait muga topatu dira.

Alde batetik, 2022ra eguneratutako jarduera-errolda oso bat ez egoteak, errealitateko irudi lausotu bat izatea ekar dezake, aztertu den profila (2019) zaharkituta geratu ahal izan delako.

Bestalde, eremuaren analisisian, *Superilles* fenomenoaren aldaketa potoloago bat ikusi ahal izateko denbora gutxi pasa dela esan daiteke, kontutan hartuz, kale hauek baketu zirenetik pandemia bat izan dela bitartean, non sektore kaltetuenetako bat ostalaritza izan den. Interesgarria litzateke 5 bat urteren buruan beste azterketa bat egin ahal izatea.

Azkenik, datu kuantitatiboetatik haratago datu kualitatibo osagarriak erabiltzea ere ondo legoke etorkizunean. Analisia, pertsonen inkestak eginez hobetu liteke, baketuta dauden kale-zatiak topera egotearen pertzepzioari buruzko iritzia jasoz. Era berean, analisi zehatzagoa egin liteke, merkataritza-lokalen estetikari dagokionez izan duten hobekuntza-maila neurtzeko. Ildo horri jarraiki, gentrifikazio komertzial bat egon litekeen egiaztatu ahalko litzateke; izan ere, bi jokabide ikusi dira: taberna eta jatetxeek ia beti bere erabilera mantentzen dute; edo bestela, jarduerarik ez izatera igarotzen dira. Horrek, lokalengatik gehiago eskain dezakeen erosle baten zain daudenaren zantzua eman lezake.

#### 6. Erreferentziak

Ajuntament de Barcelona. PEUAT 2016: Informe sobre la incidencia de l'actividad turística en l'accessibilitat a l'habitatge a Barcelona. CPSV. Barcelona. 2016. <http://bit.ly/2dq5ELp>

Ajuntament de Barcelona. PEUAT 2021: Pla Especial Urbanístic per a la regulació dels establiments d'allotjament turístic, albergs de joventut, habitatges d'ús turístic, llars compartides i residències col·lectives docents d'allotjament temporal a la ciutat de Barcelona. Barcelona. 2021. <http://bop.diba.cat/anuncio/3177555/>

Ajuntament de Barcelona. Pla especial de regulació de les activitats de pública concurrència, comerços alimentaris i altres activitats del districte de l'Eixample. Pla d'usos de l'Eixample. Barcelona. 2022.

Arriaga Irazabal, M. (2022). Incidencia de la pacificación vial sobre el tejido comercial y actividades a pie de calle en el distrito barcelonés del Eixample. Universitat Politècnica de Catalunya. <http://hdl.handle.net/2117/377454>



- Caballero Rabanal, L., & Tapada Berteli, M. T. (2017). " David contra Goliat": el caso de Sant Antoni (Barcelona). Universidad Autónoma de Barcelona. <https://ddd.uab.cat/record/181877>
- Carrillo Ángeles, E. D. P. V. (2019). Repercusión de los impactos en el tejido residencial y en el tejido comercial, derivados de los procesos de gentrificación en una "Barcelona de dos velocidades". In XIII CTV 2019. *XIII International Conference on Virtual City and Territory: "Challenges and paradigms of the contemporary city"*: UPC, Barcelona, October 2-4, 2019. Centre de Política de Sol i Valoracions, CPSV/Universitat Politècnica de Catalunya, UPC. <http://hdl.handle.net/2117/185554>
- Cócola Gant, A. (2015). Tourism and commercial gentrification. In *The Ideal City: between myth and reality. Urbino (Italy), RC21 International Conference*. <https://www.rc21.org/en/wp-content/uploads/2014/12/E4-C%C3%B3cola-Gant.pdf>
- González, M.J. (2006): La sostenibilidad de los centros históricos en los albores del siglo XXI. *Anales de la Geografía*, 26, 49-63. ISSN 0211-9803.
- Hernández Ramírez, J. (2018). La voracidad del turismo y el derecho a la ciudad. *Revista Andaluza de Antropología*, 15, 22-46. <https://hdl.handle.net/11441/87336>
- Larrea Eguiguren, A. (2017). Transformación de las actividades económicas y generación de nuevos usos a causa del turismo: El Ensanche de Barcelona. Universitat Politècnica de Catalunya. <http://hdl.handle.net/2117/111937>
- López Villanueva, C., & Crespi Vallbona, M. (2021). Gentrificación y turistificación: dinámicas y estrategias en Barcelona= Gentrification and touristification: dynamics and strategies in Barcelona. Encrucijadas. *Revista Crítica de Ciencias Sociales*, 2021, vol. 21, num. 1, p. a2102. <http://hdl.handle.net/2445/184697>
- Martí Comas, P. (2016). Competència entre els usos turístics i residencials a Ciutat Vella. Universitat Politècnica de Catalunya. <http://hdl.handle.net/2117/98515>
- Salinas, L. (2016). Transformación de mercados municipales de Madrid. De espacio de consumo a espacio de esparcimiento. *Revista INVI*, 31(86), 179 – 201. <http://dx.doi.org/10.4067/S0718-83582016000100007>
- Salvador González, L. R. (2019). Impactos de la priorización peatonal sobre el comercio y los servicios a pie de calle. Ejes comerciales de la ciudad de Madrid: gentrificación comercial y pérdida de complejidad urbana= Impacts of pedestrian prioritization on retailing and street level services. Commercial axes in the city of Madrid: commercial gentrification and extinction of urban complexity. *Territorios en formación*, (15), 149-170. <https://doi.org/10.20868/TF.2019.15.4005>
- Sanz, A. (1998). "Elogio y censura de la peatonalización de los centros históricos". *Ciudad histórica y calidad de vida*. Universidad de Burgos. <http://habitat.aq.upm.es/boletin/n28/aasan.html>
- Simó López, M., Casellas, A., & Avellaneda, P. (2018). Comercio minorista y peatonalización: evolución y adaptación en la ciudad costera de Malgrat de Mar (Barcelona). *Anales de geografía de la Universidad Complutense* (Vol. 38, No. 1, p. 219). Universidad Autónoma de Barcelona. <https://doi.org/10.5209/AGUC.60476>
- Zukin, S. (1998). Urban lifestyles: Diversity and standardisation in spaces of consumption. *Urban studies*, 35(5-6), 825-839. <https://doi.org/10.1080/0042098984574>

## 7. Eskerrak eta oharrak

Lan hau, Josep Roca Cladera doktore arkitektoaren gidaritzapean egindako *Master Universitario en Estudios Avanzados en Arquitectura Barcelona (MBArch)* master akademikoaren amaierako lanetik (Arriaga Irazabal, 2022) eratorria izan da. Eskerrak ematen dizkiot nire tutoreari bere laguntzagatik, eta halaber, eskerrak ematen dizkiot baita CPSV-ko ikerkuntza taldeari.